

BILTZARRA BUKATZERA DOAN ARRATSALDEKO SAIO HONETAN, IADA BILTZARREKO HELBURU NAGUSIAK BETERIK, EZ DUGU AHAZTU NAHI SINDIKATU HONEK BERE GARAIAN INTSUMISIO MOTA GUZTIEN ALDE, ETA BEREZIKI, ESPAINIAR ETA FRANTZIAR EJERTZITOEI EUSKAL HERRIKO ETA ESTATUKO GAINONTZEKO HERRIETAKO GAZTEEK ETA OROHAR LANGILE GUZTIEK, ERAKUTSITAKO JARRERA INTSUMISIOAREN ALDE ATERA IZANA.

BIDE HORRETATIK, GOGOAN DAUKAGU, INTSUMITU PRESOEK BIZI DUTEN EGOERA BIDE GABEKO ETA LATZA, ARE GORDINAGOA, ESTATUAN ZEHARKO KARTZELATAN SAKABANATURIK DAUDEN INTSUMITUENA. BERAIENTZAT SINDIKATUKO KIDEON ELKARTASUNIK BEROENA ESKATZEN DUGU.

BESTALDE, BELLOCH ETA PSOEKO FASZISTEN KODE PENAL BERRIA SALATU NAHI GENUKE BIZIKI, EZEN GAZTERIAK ERAKUTSITAKO JARRERA PAKEZALEARI OZTOPO EZEZIK, BEREZIKI, GIZARTEAREN ATAL HONEK BIZI DUEN LAN EGOERA BELTZARI GAINERATZEN ZAION ZANGOTRABA BERRIA BAINO EZ DELA ARGI ADIERAZIZ.

INTSUMISIOAREN HERRIOTZA SOZIALA EKARRI NAHI DUEN LEGE HONEN AURREAN, L.A.B.EN ESKUTIK INTSUMISIOAREN ALDEKO ERABATEKO LAGUNTZA, ETA HONI BULTZADA TINKO BAT EMATEA DUGU GOGOKO. HORRELA, LANTEGIETAKO NEGOZIOAZIO KOLEKTIBOETAN INTSUMISIOAREN GAIA MAHAI GAINEAN EGON DADIN AHALEGIN BAT EGIN DEZAGUN ESKATU NAHI DIZUEGU.

BESTERIK GABE,

GORA INTSUMISIOA ETA INTSUMITU PRESOAK !

GORA LANGILERIA INTSUMITUA !

ZA
BAI
TZEN

DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20146